

**Kultura eta sormen
garaikidea lantzeko
programa**

GARA
RMA
TU



GARATU

Oihaneder Euskararen Etxeak, Gasteizko Udalaren laguntzaz, azarotik abendura bitartean *GARATU. Kultur eta sormen garaikidea lantzeko programa* antolatu du. Bertan **16-25 urte bitarteko 15 gaztez** osatutako lantaldea osatuko da.

Ikastaro formatua baliatuko da talde honek kultura garaikidea eta pentsamendu kritikoa sustatu dezan. Odei Barroso bertso-raperoak, Txakur Gorria (Malen Amenabar eta Mariñe Arbeo) autoediziorako taldea, Formol Laborategiko antzezleak (Intza Alkain, Edurne Azkarate eta Mikel Iburguren) eta Mainer Oleaga zinemagileak izango dira GARATU programako lantaldeari zuzendutako saioak dinamizatuko dituztenak.

Izena emateko epea: urriaren 20ra arte (barne).



NORI ZUZENDUTA DAGO?

GARATU programa **16-25urte bitarteko gazteei** zuzenduta dago. Hiek **Gasteizen jaio, bizi, lan egin edo ikasi** behar dute.

Partaideei **ez zaie arlo artistiko hauetan aurretiko formakuntzarik eskatuko** eta dohakoia izango da. Honenbestez, artean dela edo diseinuan, idazketan, taldehausarketetan, kultura kudeaketan, talde zaintzetan edo sare-sozialetako kudeaketan dela, denek izango dute lekua GARATU taldearen baitan.

*Abenduaren 23an izen emandako saioen %80ra joan izanagatik, GARATU 2021 programan parte hartu dela egiaztatzen duen **ziurtagiri ofiziala** emango zaie parte-hartzaileei.





A. multzoa

Azaroak 6, larunbata: **Bertso-rapa**

Odei Barroso

Giza eskubideak eta aniztasuna

Azaroak 20, larunbata: **Autoedizioa**

**Txakur Gorria (Malen Amenabar
eta Mariñe Arbeo)**

Sorkuntza euskaraz

LANTEGIAK



B. multzoa

Abenduak 11, larunbata: **Antzerkigintza**

**Formol Laborategia (Intza Alkain, Edurne
Azkarate eta Mikel Ibareguren)**

Gazteak gizartea eraldatzen

Abenduak 18, larunbata: **Zinemagintza**

Maidar Oleaga

Mikromatxismoak eta genero berdintasuna

Abenduak 23, osteguna: **EKIMENA**

GARATUko parte-hartzaileak antolatutako ekimena

LANTEGIEN EGITURA

Geratu_ 10:00-12:00_ adituen ekarpenak

Geureganatu_ 12:00-13:00_ kafe-solasaldia

Garatu_ 13:00-15:00_ sormen tailerra



EGITURAREN ZEHAZTASUNAK

GARATU 2021 azarotik abendura bitarteko 4 larunbatetan burutuko da Montehermoso kulturunea-Oihaneder Euskararen Etxean, 10:00 - 15:00 artean. Partaideak 12:00etatik 13:00etara dinamizatutako kafe-solasaldian hamaiketakoa izango dute.

- 1. Saio bakoitzaren sormen prozesua arlo sozialeko gatazka baten inguruko hausnarketak zeharkatuta egongo da: **Gazteek gizartean eragiteko gaitasuna, giza eskubideak eta aniztasuna, euskararen erabilera eta mikromatxismoak eta genero bertintasuna** izango dira, hain zuzen ere, kulturaren bidez landuko diren auzi garaikideak.
- 2. Ildo berean, **parte-hartzaileak** izango dira Abenduaren 23rako **ekimen bat antolatuko** dutenak. Montehermoso kulturunea-Oihaneder Euskararen Etxeak dituen azpiegiturak eta baliabideak eskainiko zaizkie eta kultura-kudeaketan trebatzeko aukera izango dute. Ekimen honi dagozkion sare sozialak sortu eta kudeatu beharko dituzte eta antolaketarako diru-sari bat eta gidaritza-laguntza jasoko dute.





HELBURUAK

Egitasmo honek hamabost gazteren arteko talde kohesionatu bat sortu, eta kulturari modu kritiko eta partehartzailean erreparatzeko guneak eta uneak eskaini nahi ditu. GARATU sortzaile gazteen sarea elikatzea, eta euskararen erabileran eta gaitasunean eragitea bilatzen duen programa da.

ZER ESKATUKO DA?


Ez da aurretiko formakuntzarik eskatuko. Partaide bakoitzak sormen prozesuan landuko diren gogoko ataletan hartuko du parte, eta ez da gogokoak ez dituen ekintzetan edo roletan parte hartzera behartuta egongo. Denon artean espazio segurua eta anitz bat sortuko dugu zeinetan euskara izango den hizkuntza nagusia, eta kultura zein gizartearekiko ikuspegi kritikoa sustatuko diren.



IZEN-EMATEA

- **Noiz?** Izena emateko epea urriaren 20ra arte (barne) egongo da zabalik.
- **Nola?** Oihaneder.eus-en topatuko duten inprimakia betez.
- **Ebazpena:** Urriaren 22an jakinaraziko dira parte hartuko duten hamabost gazteen izenak.
- **Eta adin tarte horretatik kanpo bazaude?** 16-25 urte bitarteko gazteei eskainita dagoen arren, interesik bazenu izena ematera animatzen zaitugu eta itxaron zerrenda batean sartuko zaitugu.





**OIHANEDER
EUSKARAREN
ETXEA**

GASTEIZKO
KAFFE ANTZOKIA
oihaneder.eus

**VITORIA
GASTEIZ !**
green capital ■



G
A
R
R
A
T
U